

ERREPORTAJEA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK ZELETA BASERRIAN · KULTURA OSKORRIREN  
"THE PUB IBILTARIA" · HAUTESKUNDEAK IU-KO ETA PP-KO ERRENDABURUEI ELKARRIZKETA

# BARREn

ASTEKARIA



GEHIGARRI BEREZIA  
EZKONTZAK

ZELETA BASERRIA

## Energia berriztagarriak tomateen zerbitzura

"BASERRITARRA, BETI IKASTEN" (esaera zaharra)

EL GOI BARRKO ASTEKARIA · 2005ko maiatzaren 9o/14. urteko 444. 3ko



Hau aldatzera goaz!

denok batera,  
gipuzkoa aurrera!

0\*\*t#10#0110itt0

[gipuzkoa@aubilgunea.org](mailto:gipuzkoa@aubilgunea.org)

boz1(a

Autodeterminaziorako Bilgunea



OZTOPO GUZTIEN GAINETIK



e  
i  
n  
b  
t  
o  
u

bozkatu

e  
i  
n  
b  
t  
o  
u  
!



# 40 URTE 40 ISTORIO



ELGOIBARKO IZARRA  
KUTTUR ELKARTEA



## 16 Jaleta eta Elgoibarko Izarra

Aurreko astean ingelesaren eskaintzarekin harritu baginen, aste honetakoa ere ez da gutxiagorako: Baleta. Dantza mota honek euskal kulturarekin eta dantzarekin lotura zuzenik izan ez arren, Elgoibarko Izarran ez zen batere erreparorik izan baleta erakusten hasteko. Eta Felixek esan digunez, "*estimazio polita izaten zaban*". 30 ume inguru animatzen omen ziren urtero-urtero baleta ikastera.

Baleta ikastolan zebiltzan umeei ematen zitzaie, nahi zutenei, eta neskak zein mutilak animatzen ziren, neskak gehiago izaten baziren ere. Baina mutilen artean, besteak beste, gaur egun ondo ezagunak diren bi herritarrek jardun zuten: Arnaldo Otegik eta Josu Mujikak. Arnaldok baleta laga eta futbolari ekin zion gaztetan, baina Josu Mujikak baletari lotuta segitzen du oraindik ere. Emozio puntua igarri diogu Josuri garai hura nola gogoratzen duen galdetu diogunean: "*Baleta magia zan neretzat! Baletako anderetioak eskuak nola mobitzen zittuan ikustian liluratuta geratzen nitzan. Eta San Anton egunian egitten gendun emanaldixa? Haura grandiosa izaten zan*". Bistan da baletak betirako harrapatu zuela Josu.

Errusian egon eta Eibarren bizi zen emakume batek ematen zituen baletako klaseak. Astean pare bat ordutan elkartzen ziren eta, Josuk gogoratu digun moduan, San Anton egunean Odeoian egiten zen jaialdian izaten zuten urtean zehar ikasitakoa jende aurrean erakusteko aukera. Amaitzeko, Felixek esan digunez, baletarena ez zen bi-hiru urteko moda pasakorra izan, "*bastante urtian iraun zaban*".

*Felix Etxeherria eta hnanol Larrañaga*

# iritzia



## Bi istorio, argudio bat

Kalea gustoko dut. Umetan, Errosario kalean bizi ginenean, noiznahi ematen nituen orduak frontonean pilotan zein elizako arkupeetan futboleak sakristauak baloia kendu arte. Gozamen hutsa zen etxetik kanpora ibiltzea. Gaur egun ere kalezalea naiz, kaleusoa. Atseginaz joan ohi naiz lagunetara, solas egin eta beste hainbat jenderekin harremanak lantzeraz.

Herritik kanpora ibiltzea ere oso maite dut. Aitzakia handirik behar izan gabe badut beste edozein lekutara mugitzeko ohitura. Eta zorionez izandako leku guztietan sentitzen naiz alai, lasai eta eroso. Jakina da gure gizarte honetan kalean erlazionatzeko ohitura handia dugula; beraz bertan igarotzen ditugu bizitzako ordu asko.

Halaber badago makina bat gauza nire onetik ateratzen nauenik. Egunkariaren alde burutu zen manifestaldi erraldoiaren ostean, Donostiako Parte Zaharrean gelditzea erabaki genuen lagunok. Plan polita ustez. Baina hara non datozen dozena bat mukizu EZ dakit zein aberriren izenean zakarrak erreaz eta parean harrapatzen zutena apurtuz. Erabat hautsi zuten inguruan genbiltzanon pakea eta lasaitasuna. Egindako triskantzaz gain ageri zuten harrotasunak sumindu ninduen.

Herenegun, ostera, lanerako bidea hartuta nindoala autopistako Durangoko peajejan izan genuen aurrez kontatu dizuedan antzerako ustegabeko bisita. Ordainketa gauzatzen ari nintzelarik Goardia Zibilen hiru Patrolek, Donostiako mukizuek hondamena muntatu zuten bezain arin, jarri zuten kontrola. Hemen ere egotea tokatu zitzaidan, alegia. Ez da lehenengo aldia baina. Ostegun Santu bezperan oportetara gindoazela ere leku berean geldiarazi baigintuzten, eta autopistako kobratzaileak esan zidan bezala eguneroko ogia baita.

Guztientzako sentimentu berak ditut jadanik. Batzuk zein besteek erakusten duten harrotasunak eta darabilten inpunitateak sumintzen naute erabat. Eta niretzat guztiak daude traban herri honetan.

Gotzon Arrieta

KeXak .....	5
motz MOtZ .....	8
gehigarria .....	11
kiRoLAK .....	2,
aGenda .....	32

## MARCI GODOY-RI ESKUTITZA

Kanpaiek heriotzaren soinua dakarte, beldurgarria da. Zergatik heriotzaren soinua, berpizteko garaian? Zergatik ezin Glorian bizi, bertara deituak baldin bagaude?

Marci ez gaituzu utzi, egoeraz aldatu duzu soilik. Egoeraz aldatu eta jarraikotasunaren hazia eren duzu.

Minarekiko oso sentikorra zinen, maitasunean handia, denontzako tokia zeneukan bihotzean. Ez zenuen aurkezpenik behar, zu ezagutzearekin nahikoa zen. Ez zinen diskurtso handien laguna, zure begirada eta irribarrearekin nahikoa zen.

Ez dugu sekula jakingo zergatik erabaki duzun une honetan alde egitea. Zure egitekoa bete duzu dagoeneko. Zure testamentua argia izan da, etxe koentzako eta ezagutu zaitugunontzako... hitzak soberan daude.

Hemen gaudenok, arrazoiren batengatik gaude hemen, gure egitekoa bete behar dugu.

Agur, gero arte.

Jose Antonio Zuazubizkar

## HAUTESKUNDE AURREKO DEBEKUAREN AURREAN

Abertzale eta ezkertiarrok geure eskubide politikoak erabiltzeko sortu ditugun herri plataformek ere hauteskundeetan aurkezteko debekua jaso dugu Espainiako gobernuaren aldetik: Elgoibarren 650 herritarrek babestu zuten aurkezteko eskubidea sinadura pertsonalaren bidez. Horren aurrean plataforma politiko hauek Euskal Herri mailan jarrera bateratua hartu dugu honako irizpideekin: Abertzale eta ezkertiarren presentzia politikoa Euskal Herriko herri guztietan mantentzea, geure plataformaren paperetak bozkatzu. Hauteskunde hauen legitimaziorik eza eta izaera antidemokratikoa salatzea maiatzaren 9an mobilizazio eta lan uzte eguna antolatuz, eta kanpainan zehar salaketa eta interpelazio ekimenak burutuz. Hauteskunde hauetan ere ez digute utziko aurkezten gure mugimenduaren ideiak gizartetik desagertuaraziz indarrez. Honen ondorio politikoa handia da, begibistan uzten duelako Estatuaren legitimazioa Euskal Herrian: bere pentsakeragatik jendea atxilotu eta torturatu, egunkariak itxi, alderdiak ilegalizatu eta orain hauteskundeetan aurkeztea debekatu. Eta autodeterminazio eskubidean oinarrituko den beste marko baten beharra ager agerian uzten du.

Euskal herritarrok duintasunez jokatu behar dugu eta Estatutik luzatu erronkari tamainan erantzun: helburua abertzale eta ezkertiarrok desagertaraztea bada, sekula baino presentzia handiagoa izan behar dugu hauteskundd prozesu honetan, eta zer esanik ez, ondoko hilabete eta urteotan: hemen gaude eta gure ideiak defendatzen jarraituko dugu. Euskal Herriko alderdi politiko demokratikoei modu tinkoan eskatuko diegu euskal herritarren borondatea errespetatzea madrildo legalitate ustelaren gainetik: EAREA/IU-k Aznarren aginduei men egin, ala euskal herritarren borondatea errespetatuko dute hauteskundeetan eta ondorenean?

Munduaren aurrean aukera ezin hobea dugu Estatu espainolak euskaldunak menderatzeko boto eskubidea ere kentzen duela gogor salatzeke, protesta ekintzetan parte hartuz eta 25ean gure boza bozkatzu. Egoera salatzeke Autodeterminazioaren aldeko Bilgunea, eta Einbiou herri plataformak mobilizazio eta lan uzte eguna deitzen dute maiatzaren 9an (ostirala). 19:00etatik 20:00etara Elgoibarko kaleetan zehar giza katea egingo da plazatik abiatuta.

AuB eta "Einbiou" Elgoibarko Herri Plataforma

# Urruzunoren begi ezkutua Barneko paisaiak



Bonn-era naraman trenean noa, 40 minutu barru hango estazioan izango naizelarik. Rehin errekarren ondoan egiten du ia bidaia osoa tren honek. Oso ilun dago jada, baina uneoro

dakusat erreka zabala, eta berau inguratzen duten zuhaitzak, eta berak zeharkatzen dituen zubiak. Halako kutsu malenkoniatsua hartzen diot nik paisaiari, uraren fluxu geldiezinari; berde, urdinska, grisa, hitsa.

Horrelakoak dira Europa iparraldeko lurrik; horrelakoak edo antzerako samarrak. Inguruak ere kutsatzen omen dio jendeari histasun hori. Diotenez, paisaia nolakoa, halakoxeak dira bertakoek sentimenduak. Ez dakit nik ba hori egia ote den. Izan liteke, hein batean, baina ez dut uste erabakiorra denik.

Norberak badu bere barneko paisaia bat, eta horko lautada, haran, erreka, eta bidezidorrak, barneegi daude, norberaren baitan ezin baitago, kanpoko eguraldiak eurengan ekaitz, uholde, sute edo lurrikararik eragin dezan. Eguraldiak baino, gertaerek eta denborak higitzen dituzte, poliki baina etengabe, guztiz eraldatu arte.

Unai Villena

## ASTEKARIA

# BaRRen

Nafarroa enparantza, 2  
20070 ELGOIBAR  
e 943 74 41 12  
Publizitatea:  
e 943 74 37 04  
Faxa: 943 74 37 04  
E-posta:  
[barren@fopaqunea.com](mailto:barren@fopaqunea.com)  
Helbide informatikoa:  
[www.topaqunea.com/barren](http://www.topaqunea.com/barren)  
ARGITARATZAILA  
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILA  
Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea  
GEHIGARRIEN ARDURADUNA Uxue Alberdi PUBLIZITATEA  
Amaia Erkizia MAKETATZAILA Jaione Unanue  
GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLARORATZAILAK  
Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello  
Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arriela, Lorea  
Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi,  
Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T..  
AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren  
liburutik IgeelMirtetA Gertu Koop. E. TIRADA 4.150  
ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ELGOIBARKO IZARRA  
setrue PIFAMEA

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
eta Foru Aldundiak diruz lagundutako auzidaria.



Zi<sup>9</sup> kutxa  
gaank ekintu

/e'k, DANOBAT  
GRUPO X.R. BETA

fINGOITI  
GRUPO DANOBAT

MARTA



◆ Herritar batek azaldu digunez, Urasandiko parkean dauden kolunpioak ez dira ume txikientzako: "Urasandiko parkeko kolunpioak haur helduagoentzat dira, ez dira ume txikiak ibiltzeko modukoak. Badaude, inolako arriskurik gabe hankak sartu eta umeak bertan geratzen diren kolunpioak.



◆ Urasandiko auzokide batek esan digunez, patinetearekin ibiltzeko "U" a egin duten parkean ez dago zakarrontzirik: "Dena paper, botila eta zikinkeriaz beteta egoten da. Ez da hainbeste kostatzen zakarrontziak jartzea.



◆ Emakume batek esan digunez, Artetxe auzoa erabat ahaztuta dauka Udalak: "2 zulo handi daude kalean, eta euria egiten duenean sekulako potzuak egiten dira. Jende asko ibiltzen da ingurune honetan pasiatzen, eta oso arriskutsua da. Honetaz gain, herriko kaleetan loreak jarri eta txoko guztiak txukundu egiten dituzte, baina Artetxan ez dute azkenaldian ezer ere egiten. Auzoan dauden lore guztiak auzokideek erosi eta jarritakoak dira. Gure auzoa ere, kontuan hartzea gustatuko litzaiguke".

? **GALDERAK**


◆ Herritar batek ondorengo galdera egin digu: Beste hainbat herritan egiten duten bezala, Elgoibarren zergatik ez dute erabilitako olioak jasotzen? Udalera jo dugu eta printzipioz ez dagoela erabilitako olioak jasotzeko proiekturik erantzun digute.

Barrak, Birrak eta Barreak



©KOKOE 2003 ■ 220 (ESTOIA NIKEI RAIBOS)

# Zeleta



## Energia berriz agarriak

*Zeleta baserriko Anselmo Salazar tomateak eta beste hainbat barazki saltzetik bizi da duela 17 urtetik. Gaur egun urteko 35 tona tomate sortzen ditu 3.000 m<sup>2</sup> osatzen duten negutegietan. Negutegi kopurua gehitu ahala, hauek bero mantentzeko energia gehiago behar du. Arazoa bideratzeko energia berriztagarrien aldeko apostua egin du uraren indarrak funtzionatzen duen elektrizitate sorgailua edo turbina txiki bat eraikiz.*



**Turbina funtzionamenduan jartzen duen ur jariora, turbina baino 55 metro gorago dagoen 200 m<sup>3</sup>ko ur depositoa isurtzen duen uraren bidez lortzen da. Depositoa, berriz, Zeleta baserriaren atzealdean dauden errekaetako betetzen dute. Penton erako turbina da eta minutuko 500 litroko ur jarioarekin funtzionatzen du. Kontsumo zuzeneko turbina da, hau da, ezin du energia gorde eta gehienez 5 kilowatio sortu ditzake.**

Duela 50 urte instalakuntza hidraulikoz lortzen zuten argindarra eta errotarria martxan jartzea Zeleta baserrian. Sare elektrikoaren hedapenarekin baserri eta txoko guztietara iritsi zen argindarra, Zeletako instalakuntza hidraulikoa baztertuz. 50 urte beranduago energia berriztagarrien aldeko apostua egin du Anselmo Salazarrek. Duela hilabete batzuk turbina hidrauliko txiki bat jarri zuen martxan behar duen energia guztiaren zati bat lortzeko asmoz. Urtez urte negutegi gehiago jarri ditu Anselmok eta une honetan 5.000 m<sup>2</sup> ditu. Beroa mantentzeko urte guztian erabiltzen ditu berogailuak, 3 hilabetetan izan ezik. Orain arte erregai fosilen bitartez lortzen zuen beharrezko energia, baina turbina hidraulikoa jartzearekin batera autosufizientziaren aldeko apostua egin du, "naturak eskaintzen dizkigun aukerak aprobetxatzeko modua da, naturarekiko errespetagarriak diren medioak erabiliz. Gainera, gasoleoaren erreketa lortutako energiak CO<sup>2</sup>a isurtzen du atmosferan. Turbina hidraulikoak atmosfera ez kutsatzeaz gain, hasierako inbertsioa egindakoan gastu gutxi ditu, doanekoa baita lortzen den elektrindarra".

### **BEROGAILUAI(**

Berogailuak oso garrantzitsuak dira negutegietan, hezetasuna eta hotza baitira tomate landareen etsai nagusiak eta gaixotasunen sorburuak. "Tomateak hazteko 12 gradutik gorako tenperatura behar da, baina tenperatura altuegiak eta hezetasuna oso kaltegarriak dira. Aire beroak egiten dio aurre hezetasunari eta negutegietako gunerik hotzenetan jarri ditu berogailuak Anselmok, "arrazoi bategatik edo besteagatik negutegiko ertzetan 3 edo 4 gradu gutxiago zeuden eta tomateak geldoago hasten zirenez, bertan jarri nituen haize beroa sortzen duten berogailuak".



# tomateen zerbitzura

## SISTEMA HIDROPONIKOA

Zeleta baserriko negutegietan sartu eta atentzioa deitzen du lurraren orde zorian ere plastikoak daudela ikusteak. Landareak ere ez daude lurrian sustraiturik, zaku txuri txiki batzutan eta ilara txukunetan lerrotatuta baizik. Laborantza hidroponikoa da tomateak hazteko sistema honen izena. "Tantakako ureztaketaren bidez jasotzen ditu tomate landareak behar dituen nutrigai guztiak. Landarearentzat suero edo elikagai modukoa da, makroelementu eta mikroelementuz osatua". Ez du ohiko lurra erabiltzen, perlita izenekoa buztin erreba baizik. Buztin errearen funtzioa sustraiak finkatzea eta urarekin batera datozen mantenugaiak eustea da. "Mantenugai batzuk urak dakartza eta gainontzekoak guk gaineratzen dizkiogu. Uraren kalitatearen arabera izaten da. Kaltzio gutxi badu urak, adibidez, gaineratu egiten diogu, tomateak kaltzio kopuru jakin bat behar baitu". Lurraren orde perlita erabiltzeak abantaila nagusi bat duela azaldu digu Anselmok, "lurra nekatu egiten da eta atsedena eman behar zaio, baina 3 urtez deskantsuan egon arren zaila izaten da berriz hasierako etekinak ateratzea. Perlitarekin 3 edo 4 laborantza ostean aldatzen dira zakuak eta etekinak urtero dira onak".

## 25 URTE BARAZKIAK LANDATZEN

Anselmok aitortu digunez 25 urte bete dira aurreko lehen egutegia jarri zutenetik, "1978. urteko martxoaren zen eta 10 m<sup>2</sup>ko negutegi txikia eraiki genuen. Negutegietan letxugak aurreratu zitezkeela konturatu ginen, hau amerika da! esan genien geure

buruei. Uda ostean inspiratuta itzuli ginen Europatik zehar egindako bidaia batetik eta baserrian genituen haritz egur batzuekin eraiki genuen negutegi berria. 79ko otsailean elurte izugarria egin zuen eta negutegia txikitu zigun. Ezagutza gutxi genuen eta ez genion behar besteko inklinazioa eman. Urte bereko urriaren metalezko egitura zuen lehen negutegia eraiki genuen. Valentziatik ekarri behar izan genuen". Duela 17 urte hartu zuen barazkiak saltzetik bizitzeko erabakia eta oraindik ere gogoan du nori saldu zizkion lehen letxugak. "Duela 25 urte hasi nintzenean amets bat besterik ez zen. Orain 17 urte argia ikusten hasi nintzen eta labelarekin asentamendua iritsi zen".

## "Tantakako ureztaketaren bidez jasotzen ditu tomate landareak behar dituen nutrigai guztiak"

Anselmo Salazar

## 35 TONA TOMATE

Beste barazki batzuk hazten dituen arren, tomateak da Zeletako erregea. 3.000 m<sup>2</sup>tan 35 tona tomate lortzen ditu urteko Anselmo Salazarrek, hau da, 12 kilo tomate ateratzen ditu metro karratu bakoitzeko. Guztira 3 tomate barietate ezberdin landatzen ditu: Labelduna, etxeko berezia eta Rat izenekoa. "Izugarri gustatzen zait tomateak haztea. Orduak eta orduak pasa ditzaket negutegian tomate artean. Landarearen kolorea eta egoera animikoa interpretatzen jakin behar du baserritarrak. Azken emaitza produktu garbi eta osasungarria da, eta edonor etorri daiteke ikusi eta egiaztatzeraz".

**Energia Alternatiboen Erabiltzaileen Elkarteak urte hasieran sortu zen. Ingurugiroarentzat kaltegarriak ez diren energi iturrien inguruan sortutako elkarteak da eta Zeleta baserria hasieratik egon da sartuta proiektu honetan. Lastur inguruko baserritarrek batera. Gero Goierriarantz eta Donostialderantz zabaldu zen.**

- Helburuak:
  - Atmosferan CO<sub>2</sub> —aren presentzia gutxitzea
  - Laguntza juridiko eta teknikoaren bitartez energia berriztagarrien ekipoak instalatzea.
  - Nekazal ingurunean bizi kalitatea hobetzea, nekazal jardueraren gastu energetikoak gutxituz, hortarako baserrietan sistema fotoboltaikoak ezarriko dira sare elektrikorak konektatuta.
- Zerbitzuak:
  - Elkarteko kideei laguntza tekniko eskaintzea, era berean aholkatu eta orientatzea, instalazioen funtzionamendu onenean parte hartuz.
  - Entitate publiko zein pribatuek, nazionalak zein nazioartekoak izan, eskaintako subentzio eta laguntzen tramitazioan aholkatuko da, era berean dirulaguntza hauek Elkartearen helburuak lortzeko bideratuko direlarik.
  - Enpresa instalatzaileekin instalazio eta mantenu kontratua ezartzean laguntza juridikoa eskaintzea.
  - Aipatutako helburuen inguruan, garapen ekologiko eta ekonomiko mailan nazioarteko kooperazio jardueretan parte

- Energia berriztagarriak  
Europako Batzardeak argitaratutako liburu berdearen arabera, Europako Batasunean gaur egun kontsumitzen den energiaren %41 petroliotik dator, %22 gas naturalatik, %16 erregai fosil solidoetatik, %15 energia nuklearretik eta %6 energia berriztagarrietatik. Liburu berdeari jaramon eginez, energia berriztagarriak bultzatzeko bide bakarra zergak murriztea eta laguntzak handiagotzea dira, eta petrolio, gas eta energia nuklearraren sektoreak mozkinen parte bat berriztagarrietara bideratzea proposatzen du. Energi iturri hauek garbiak dira, ez dute teknologia konplexuegirik behar eta gainera bost mila milioi urtez (gure izarrak bere sistema irentsi arte) bermatuta daude

Egungo energi iturrien problematikaren aurrean (agortzea, kutsadura, istripuak...) irtenbide bideragarria dira energia berriztagarriak. Euskal Herrian jadanik martxan daude honako hauek: Eolikoa, hidraulikoa, fototermikoa, fotovoltaikoa, nontormikna maromntri7a Pta hinmaga



## Herritarren %44,7ak hitz egiten du euskaraz Elgoibarko kaleetan

Euskara Batzordeak eginiko azterketaren arabera haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak

Udaleko Euskara Batzordeak egindako kale neurketaren arabera, elgoibartarren %44,7ak hitz egiten du euskaraz herriko kaleetan. Azterketa hau egiteko martxoaren 29tik apirilaren 4ra, 5.906 elgoibartarren hizkuntza jokaerak neurtu ziren, eta horietatik 2.645 izan dira euskarazkoak.

Urtez urteko datuak begiratzen baditugu, haurrak dira Elgoibarko kaleetan euskara gehien erabiltzen dutenak (%63,5). Euskara gutxienean helduek erabiltzen dute (%35,1). Gazteen %43ak

eta adinekoen %41,1ak erabiltzen dute euskara.

### Txikiteo giroan gorakada

Giro ezberdinei dagokienez, ikastetxeetako irteeran, familia giroan eta jolaslekuetan erabiltzen da euskara gehien. Aipatzekoa da bestalde, txikiteo giroan eman den gorakada (%36,3tik %43,4ra). B elaualdi bakoitzak esparru desberdinetan gorabehera handiak azaltzen ditu. Adibidez, ikastetxetik irtetean eta erosketa giroan gazteen %45,6tik gora

euskaraz egiten du, baina jolaslekuetan erabilera hori %34ra jaisten da.


Elgoibartarren euskara erabilera orokorrak 1998. urtera arte gorantz egin zuen, eta 98tik 2001era piska bat jaitsi egin zen. Taulan ikusten den bezala, iaz gorakada handia izan zuen, eta aurten apur bat jaitsi den arren (%0,8), orokorrean mantendu egin dela esan daiteke. Euskara Batzordetik esan digutenez, "2001etik 2002ra euskararen erabilera izan zuen igoera 2003an ere, mantentzea lortu dugu elgoibartarrok".

	1991	1998	2000	2001	2002	2003
Haurrak	%40,5	%68	%66,7	%63	%70,9	%63,5
Gazteak	%22	%39,1	%37,6	%40	%44,6	%43
Helduak	%19	%29,8	%27,6	%25,7	%32,9	%35,1
Adinekoak	%43,8	%40,6	%33,2	%33,2	%40,8	%41,1
GUZTIRA	%25,2	%40,3	%38,3	%37,4	%45,5	%44,7

Giroa	Euskaraz
Ikasleen irteera	%52,6
Familia giroa	%48,4
Jolaslekuak	%47,6
Txikiteoa	%43,4
Gazte giroa	%41
Erosketa giroa	%38,4

## Einbiou maiatzaren 25eko Udal Hauteskundeetara aurkeztu egingo da

Auzitegi Gorenak galarazitako 241 plataformetako bat da Einbiou



Iñaki Bengoetxea, Iñaki Odriozola eta Edurne Lasa Einbiou Herri Plataformaren prentsaurrean

Jean zen maiatzaren 5ean Einbiou Plataformako kideek eskaini zuten prentsaurrekoan azaldu zuten, datorren maiatzaren 25eko Udal Hauteskundeetara aurkeztu egingo dira. Iñaki Odriozola izango da zerrendaburua, eta Auzitegi Gorenak kontrakoa erabakitzen badu ere, Einbiou Plataformako papeletak urnetan egongo direla adierazi zuen: "8 egunetan 650 sinadura jaso ditugu, eta espainiar legediak utzi ala ez, herritarrek ala erabaki dutelako aurkeztu egingo gara".

Prentsaurrekoan azaldu zuten bezala, Einbiouk hiru zutabetan oinarrituko du bere jarduerak: Eraikuntza Nazionala, Oinarritzko Eskubideak eta ezkerreko Ikuspegia.

Hiru oinarri hauek kontuan izanik, zazpi puntutan banatu zuten hauteskundeetarako aurkeztutako programa.

1. Ongizate Saila, oro har, indartzea
2. Gazteriaren Batzordea eratzea
3. Emakumearen Batzordea eratzea
4. Etxebizitzaren arazoa (Edonon eta edonola eraikuntzak egitea geldiarazi, eta beharrak ikertu)
5. Aita Agirre eraikuntza eta Plaza Txikiko berreraketa (Kultur eta giza taldeen eremu izan dadin, aisialdirako ingurune atsegina sortuz)
6. Udalbiltza bultzatzea (EHNA udaletxean egin ahal izatea, Xiberoa 2010 garapen egitasmoa, Euskal Herriaren eskubideen karta...)
7. Euskaraz bizitzeko eskubidea



## Udalak 12 panteoi aterako ditu subastara



Olasoko hilerrian, urte askotan zehar erabili gabe zeuden 12 panteoi aterako ditu subastara Elgoibarko Udalak. Iaz argitaratu zuen Udalak panteoi hauen zerrenda, eta kasu gehienetan **ez zen bertan** lurperatutakoen seniderik agertu. Udalak panteoi hauck subastara ateratzea erabaki du, eta interesatuek maiatzaren 22ra arte eman dezakete zozketan parte hartzeko izena. Ondoren, bi zerrenda argitaratuko

dira. Elgoibartarrena alde batetik, eta kanpoan bizi direnena bestetik. Zerrenda hau publiko egin eta bost egunetara egingo da panteoien zozketa Elgoibarko udaletxean, eta herritarrek lehenetsuna izango dute. Panteoien prezioa desberdina da, bere egoera eta tamaina kontuan izanik. Merkeenak 4.810 euro balio ditu, eta garestienak 15.625 euro. Zozketan sarituek 99 urtez izango dute panteoien jabetza.

## 90 haur eta gazte aritu dira Atxutxiamaiak Pazko Astean antolatutako ekintzetan

Atxutxiamaiak eta GAZ-T aisialdi taldeek Pazko Astean antolatutako udaleku eta ekintzetan 90 haur eta gazte eta 14 begirale aritu dira.

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1, 2 eta 3. mailako haurrak udaleku irekietan ibili dira, Lehen Hezkuntzako 4, 5 eta 6. mailakoak Aubixan egon dira eta DBH 3 eta 4. mailako gazteak Askizun (Getarian). Bestalde, zapatuan Txuri Urdira joan ziren Lehen Hezkuntzako 1, 2 eta 3. mailakoekin. Esan digutenez, eguraldiak asko lagundu du eta giro polita sortu da ekintza hauetan.



## Lorezaintzarako tresneria erakusketa izan zen San Migelen




Belaustegi jatetxeko aparkalekuan lorezaintzako tresneria erakusketa izan zen apirilaren 23tik 25era, Arrizabal enpresak antolatuta. Nekazaritza sektoreko aditu ugari, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako hainbat herritako alkateak izan ziren erakusketan. San Migelera gerturatu zirenek, punta-puntako lorezaintza tresneriaren funtzionamendua ikusi ahal izan zuten. Besteak beste, segamakina, loreak podatzeko makina, eta konposta egiteko makinak izan ziren ikusgai. Antolatzaileek adierazi dutenez, sekulako arrakasta izan zuen erakusketak.



### ESKERTZA

2003ko apirilaren 28an, 79 urte zituela hil zen **JOSE MARI ZUBIAURRE MUGUERZA**ren sendiak, *blhotzez ESKERTZEN* ditu jasotako doluminak, *hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



## Udalak egin duen kale neurketaren arabera, elgoibartarren %44,7ak jarduten du euskaraz kalean **SUMATZEN AL DUZU EUSKARAREN PRESENTZIA ELGOIBARKO KALEETAN?**



### MARIA BOYER

32 urte, merkataria

Bai, dendan egiten dut lan, eta jende askok egiten du euskaraz. Umeak dira gehien erabiltzen dutenak, baina nire adinekoek ere, gero eta gehiago egiten dute.

### JAVIER CARRION

27 urte, makinako langilea

Bai, adin guztietako jendeak erabiltzen du euskara, baina batez ere, umeek. Nire koadrilan euskaraz nahiz gaztelaniaz hitz egiten dugu.



### Ma ANGELES GABILONDO

34 urte, tabernaria

Bai, ume giruan batez ere. Umiekin euskeraz eitzeko ohituria dao, baina gero, gaztien artian asko galtzen da. Gurasuak umiekin eitzen dabe, baina koadrilan erderarako joeria dao.

### SUSANA CRESPO

28 urte, langabetua

Gehienbat umeei entzuten diet. Gazteen artean gutxiago. Lagun artean gaztelaniaz hitz egiten dugu, baina nire adineko jende asko ari da euskara ikasten. Helduek dendetan lehenengo hitza euskaraz egiten dute.



### JOSE FRANCISCO CHAOS

39 urte, manipulatzailea

Lan munduan entzuten dut euskara gehien. Lantegian euskaldunak direnek, euskaraz hitz egiteko ohitura daukate. Kalean ez dut hainbeste entzuten.

### PEDRO GALARRAGA


31 urte, makina saltzailea

Eitzen da, baina ez hainbeste. Elkarrizketa errazak eitzen dia euskeraz, baina gai serixuetarako erderia gehixo erabiltzen da. Gaztiekin gehixo eitzen dabe. Jendian araberakua da euskeria erabiltzia, ez da giro kontua.



### ESKERTZA

2003ko apirilaren 27an, 80 urte zituela hil zen  
**SECUN ARKAUZ MURGIOND**Oren sendiak,  
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





# E Z K O N T Z A K

# 2003

*Ezkontzak gizarte errito garrantzitsu izan dira aspaldiko garaietan eta, gaur egun, gauzak dezente aldatu badira ere, hala izaten jarraitzen dute. Erlijioa, maitasuna, tradizioa, ohitura, segurtasuna, konpromisoa...milaka arrazoi topa daitezke "bai, nahi dut" eta ezkontzako sinadura anitzen atzean, baina ez dago dudarik, ospakizun hauek behin eta berriz errepikatzen dira hemen eta han, honela edo hala. Denboran barna eta munduan zehar bidaiatu dugu gehigarri honetan, gure arbasoak eta munduko zenbait txoko ezberdinetako pertsonak nola ezkontzen ziren azaltzeko.*



# Euskal Ezkontzak

GURE ARBASOEK ABARKAK ETA AMANTALAK JANZTEN ZITUZTEN GARAIAN, EZKONTZA PERTSONA BATEN BIZITZAKO UNE GARRANTZITSUENA ZELA ESAN DAITEKE. ALBOKO HERRIKO FESTETAKO ERROMERIAN BALTSEAN ARI ZIRELA EZAGUTUTA EDO, TXIKITATIK, ALBOKO BASERRIKO SEMEA EDO ALABA GUSTATUTA, GAZTERIK EZKONDU OHI ZIREN NORMALEAN ASPALDIKO GAZTEAK. BIDAIA DEZAGUN BADA GARAI HARTARA, EA EZ DITUGUN BASERRITARRAK BELAR-JASOTZEN, ARTAJORRAN EDO HARIA IRUTEN HARRAPATZEN...

Euskal Herrian, ezkontzarik gehienak familien arteko akordioen ondorio izan ohi ziren. Senargaiaren familiakoek andregaiaren eskua eskatzen zuten eta behin onarpena lortu ondoren, bi sendiek ezkontza-data zehazten zuten. Egun hau, uzta amaierarekin bat etortzen zen usu. Honela, ezkonberriek azienda eta elikagaiak ziurtatuta zituzten beren bizi berria hasteko.



Emaztegaia oso gaztea zela hasten zen ezkontzarako arreo prestatzen: izarak, alkandorak, etab., eta ezkonaurretik auzo eta lagun guztiak izaten zuten ezkongaien arreo ikusteko aukera. Emaztegaia jarriko zituen ondasun guztiak (altzariak, jada eginiko ohea, ardatza, zizelkaturiko kutxa, ogi handiak, botilak, zintaz apainduriko opilak...) gurdietan bildu eta honen etxetik bizileku berriraino garraiatzen ziren. Gurdiaren gainean emaztegaia lagun bat joan ohi zen, urte hartan bertan ezkontzekoa zena eta arreo babesteko kargua zuena. Beste lagunak ere inguruan joan ohi ziren, buru gainean tela eta lienzoz beteriko otarreak zeramatatela. Honi "etxe-sartzia" deitzen zitzaien eta etxe berriaren sarreran zuriz jantzirik gizon bat egon ohi zen ataria erratzaz garbitzen, emazteak garbia eta txukuna izan behar zuen adierazgarri.




Orduan ere bazen superstiziorik ezkontzaren inguruan. Senargaiak emaztearen menpe bizi nahi ez bazuen, soinekoa zapaldu beharko zion aldarean, eta alderantzizko kasuan, emazteak ez zion eraztuna hatzean oso barruraino sartzen utzi behar.

Beste ohitura bitxi bat, ezkonberriak gelara erretiratu ondoren familiako eta lagunak bertara sartu eta edabe garratz bat edanaraztea zen, gerora jasan izan beharko zuten kalbarioaren seinale.

Ezkontzaren ondorengo jan eta edanaldi izugarriek hiru egunera arte iraun zezaketen eta halako festa ikaragarriek askotan utzi zituzten dirurik gabe ezkonberriari familiak, askotan beren arteko lehia eta handinahiaren ondorioz.







*Joseba*  
**J A T E T X E A**  
**FLOREAGA Jauregia**

Aizkibel, 10 • AZKOITIA  
 Tel. 943 85 34 12

*Euskal arkitekturako eralkin  
 nagusienetakoan,  
 ezkontzak berezia  
 izan behar duelako*



*XVI. mendeko  
 jauregi gotikoa  
 paregabeko paisaia  
 batean,  
 gaur egungo joerel  
 erreparatzen dien  
 kalitatezko  
 euskal sukalde klasikoaz  
 gozatzeko aukera  
 ematen dute*



*250 lagunentzako jantokia,  
 ospakizun handietarako aproposa.  
 Bestetik, bi jantoki: 80 lagunentzat bata,  
 eta bestea erreserbatua, 20 lagunentzat.  
 Luncherako terraza aproposa.*



# SALEGI

J A T E T X E A



*250, 200, 90 eta 30  
lagumentzako 5 jangela*



*Lorategia,  
koktelarako leku  
aproposa*



*Banketeak eta kartak*

*Jangela berria ireki dugu*

*Bazkalosteak nahi beste  
luzatzeko aukera*

*Kotxe eta autobuserako  
parking-a bertaraino*



**Santuario ondoan . Tel. 943 19 90 04 / 19 91 81 . ITZIAR**



# Bitxikeriak

**2001**• urtean Euskal Autonomia Erkidegoan 9.702 ezkontza ospatu ziren.

\* Hauetatik 6.464 ezkontza kanonikoak izan ziren.

- Zibilez 3.238 bikote ezkondu ziren.



**2000**• urtean EAE ezkondu ziren guztietatik:

- 10.277 ezkongabeak ziren
- 52 alargunak ziren
- 510 dibortziatuak ziren
- 15 urteko 3 pertsona ezkondu ziren
- Ezkontza gehien irailean ospatu ziren eta gutxien urtarrilean

Santa Ana, 44 • Telf.-Fax. 943 74 44 51 • Apdo. 208 • e-mail: [navaaeuskalnet.net](mailto:navaaeuskalnet.net) • 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)













*Ezkontza*  
*Gonbidapenak*

[nava@euskalnet.net](mailto:nava@euskalnet.net)










(oolznale) 2IVE110913 Otsa . leu:leuiplsne@pnou g0Z \*opaV • 1.9 F'7 17L EV6 lXlDJ'1flel • bb 'DuV c4uos



Loiola Hz4.4.44, 24

20730 LOIOLA-AZPEITIA

Tel. 943 81 56 08  
 Faxa: 943 15 03 65

# Kulturetan

ITSASOEN BESTALDEAN, MENDIETATIK HARATAGO, HEMENDIK OSO URRUN, BESTELAKO KOLOREKO LURRALDE HORIETAN ERE PERTSONAK EZKONDU OHI IZAN DIRA, ETA EZKONTZEN DIRA. SUPERSTIZIO EZBERDINEKIN, BESTELAKO SINISMENEKIN ETA GURETZAT EZOHIKOAK DIREN ERRITO ETA OHITUREKIN, BAINA HAN ERE OSPATZEN DITUZTE EZTEI-JAIAK. MOTXILA BIZKARREAN HARTU ETA BIDAIA DEZAGUN, BADA.



## JUDUEN EZKONTZAK

Juduen arteko ezkontzetan ezinbesteko baldintza ezkongaiak erlijio horretakoak izatea da. Hala ez bada, beste erlijiokoa den ezkongaiak judaismora konbertitu beharko du. Erlijio katolikoan antzera, ezkonberriek sinagogan izena eman eta ezkonduko dituen Rabinoarekin elkarrizketa izan behar dute. Zeremonia juduan, Ketuba izeneko kontratua sinatzen da, eta bertan zehazten dira senarrak, ezkondu ondoren emaztearekiko dauzkan eskubide eta betebeharrak, hala nola: jaki eta arropaz hornitzea, hura zaintzea, maitatzea eta babestea.

## MAPUTXEEN EZKONTZAK

Maputxeen artean erakargarritasun sexualak garrantzi handia zuen ezkontzeko garaian. Ezkontza tabu zen totem bereko kideen artean, odol berekoei eragotzia baitzitzairen beren artean ezkontzea. Zeremonia, emaztegiaren aitaren eta senargaiaren arteko kontratu baten fruitu zen, andregaiaren erosketan eta honen bahiketaren antzezpenean oinarritzen zena. Senargaia, ustekabean iristen zen andre ugarik babesten zuten emaztegiaren etxera, beste gizonezko batzuek lagunduta. Borroka latzak izaten ziren hauen artean eta emaztegiaren aita eta eixeiko gainontzeko gizonezkoak ikuskizunari begira egoten ziren. Normalean neskaren bahiketarekin amaitzen zen guztia, baina senargaiak eta honen lagunek hau bahitzea ez lortuz gero, denbora luzez jasan behar izaten zituzten irain gogorrak.



## MAROKOKO SEFARDIEN EZKONTZETARAKO JANTZIAK

Keswa el k-bira izeneko Marokoko Sefardien ezkontza soinekoa belusez egina eta urrezko hariz brodatutako apaingarri dotorez hornitua izan ohi zen, eta hura ez zen ezkontza egunenak bakarrik erabiltzen. Emaztegiak aitaren opari gisa jaso ohi zuen soinekoa eta ezkondu eta gero ere, jendaurreko agerpen garrantzitsuetan ere jantzen zuten.



**Dmpievdct  
Ak-r-iiiveck**

DISEINUA -FOTOKONPOSIZIOA- ETIKETAK, KARPETAK ETA  
KARTELAK, FOILETOAK, KATALOGOAK- TIPOGRAFIA- OFFSET

Trenbide, 13 behea • Tel: 943 74 01 87 • Faxe: 943 74 27 40



**DEBAPE**  
**INPRIMATEGIA**  
komunikazio grafikoa

• DISEINU GRAFIKOA • OFFSET LITOGRAFIA • FOTOKONPOSIZIOA  
• PUBLIZITATE DISEINUA • ERA GEZTIETAKO IRAGARKI KOMERTZIALAK

Sigma Ind., Xixilion 2, 2. (7. lokala) • Te1.:943 74 40 58

• Faxe: 943 74 41 78 • debape@telefonica.net



AZALEA

eder qintza

Trenbide kalea, 3  
Tel. 943 74 03 10



**Biak**

ileapaindegia

San Inazio, 4 . Tel: 943 74 27 25

JOSE ANTO\10

ILEAPAINDEGIA

Errosario 30 • Tel 943 74 14 92

ELENA

ileapaindegia  
depilazio elektrikoa

San Frantzisko, 49-1 • Tel: 943 74 11 89

CUM

ILEAPAINDEGIA

Santa Ana, 7 - Tel: 943 74 40 26

zure eguna da

• DONNA •

ileapaindegia-Edergintza

Pedro Muguruza,13  
Tel. 943 74 43 88

**NAHIA**

ILEAPAINDEGIA

Azpilgoeta. 14  
Tel. 943 75 51 01 • MENDARO



**Maria Urizar**

Ileapaindegia  
Solariuma

Errosario, 9-1 • Tel. 943 74 44 89

magu's

Ileapaindegia-Edergintza

San Roke, 6 behe  
Tel. 943 74 34 91

**Sidney**

ILEAPAINDEGIA

San Frantzisko, 26-1 • Tel: 943 74 09 51

**ITZALA**

Edeit94te5.4

San Frantzisko, 49 • 1 esk.  
Tel: 943 74 43 03

TieA0,44  
ILEAPAINDEGIA  
t O. Q 4 22. H.

Kalamua, 2 • Tel: 943 74 43 57

**hABIER**

ILEAPAINDEGIA

San Bartolome, 13 • Tel: 943 74 19 97




**SOARTE**



**ARGAZKI SOARTE**

Santa Klara, 12  
Tel.: 943 74 20 21

[argazki-soarte@terra.es](mailto:argazki-soarte@terra.es)



**KIMETZ**  
ILEAPAINDEGIA

**Z** lokoko tOrfC41,  
943 20 33 12  
2 0 600 EISAR

Santiago Koleo. 6  
Orma, 943 15 01 61  
20730 A2PU1IA

**LASA**  
JATETXEA



*Luxuzko gkain za  
poltsiko guztien eskura*



*LASA Jatetxean,  
ezkontzaren unea  
sekula ahaz ez dezazun  
eta zure bizitzako  
oroigarri ahaztezina  
izan dadin  
lan egiten dugu.*

11 ~ 1111. >>

Ozaeta Jauregia • Tel: 943 76 10 55 • Web: [restaurantelasa.com](http://restaurantelasa.com) • BERGARA



Ezkongaiak 2003



Irailaren 10erarte egindako erreserbetan, irteera eguna baino 30 eta 45 egun artean erosiz gero %12rainoko deskontua

**OPARIAK**  
ESKURA DITZAZKEZU



**4segurua**



Sei hilabete interesik gabe, zure bidaiak GRUPO STAR txartelarekin ordainduz gero

**-5YA'k**

[e1@vialesbrlbaoexpress.com](mailto:e1@vialesbrlbaoexpress.com)

Viajes Bilbao Express  
**Bilbao Express Bidaiak**

**Kala**

L O R A D E N D A



San Bartolome, 10 eskuma - Tel. 943 74 45 16



**ASTIGARRAGA**

L O R A D E N D A

Jausoro plaza, z/g - Tel. 943 74 43 86





**JATETXEA**

Loiolako Inazio


Hiribidea, 47

20730 AZPEITIA

Tel: 943 15 16 16

Faxa: 943 15 16 18

[www.adeji.es/hotelloiola](http://www.adeji.es/hotelloiola)





# Elkarrizketa

## lia Paz Rodriguez eta Iñaki Intxausti

*PAZ ETA IÑAKI 1952. URTEKO UZTAILAREN 17AN EZKONDU ZIREN, BIEK ERE 24 URTE ZITUZTELA, ETA JADA 51 URTE DARAMATZATE ELKARREN ONDOAN. ELGOIBARRERA IÑAKIK BERTAN LANA TOPATUTA ETORRI ZIREN, ETA GEROZTIK HEMEN BIZI IZAN DIRA. EZTEI-EGUNA NOLAKOA IZAN ZUTEN GALDETUZ JOAN GARA BERAIEI ETXERA ETA, OROITZAPENEN KAXA ASTINDUZ, IRRIBARREZ ETA ILUSIOZ KONTATU DIGUTE URTEEK BERAIEKIN ERAMAN EZ DUTEN EZKONTZA EGUNAREN GOGORAPENA.*

### Nolako ezkontza izan zen?

Garai hartarako gonbidatu asko izan ginen, hogeitatu bat. Hogeitatu bat lagun eta etxean, e! Etxeko komedorea handia zen, eta hantxe bazkaldu genuen denok, soinujole eta guzti. Soinujolea laguna genuen, eta bazkaltzera gonbidatu genuen.

### Eztei-bidaiarik egin al zenuten?

Bai. Bilbora joan ginen lehenengo trenean lehen-gusu baten etxera, eta han lauzpabost egun pasa ondoren, Artaxonara joan ginen izeba baten etxera. Hotelean eta horrela ez, e! Batez, familiakoen etxeetan. Denera hamabost bat egun egin genituen kanpoan, eta bueltan... "ja dos velas!, lanean segi behar!

### Zer ezberdintasun ikusten duzue gaur egungo ezkontzen aldean?

Lehen dirurik ez zegoen eta askoz ere ezkontza txikiagoak egiten ziren, bidaiak ere gertura...zegoenarekin moldatu behar. Guk uztailearen 18ko paga hartu, eta lehendik aurreztuta geneukan beste pixka batekin ezkondu ginen. Gauzak oso desberdinak ziren: andregaiak beltzez ezkontzen ziren, eta lehen denok doktrina txiki-txikitatik ikasten genuenez, gauzak asko aldatzen ziren...Orain dena libre da!

### Etxe propiorik ba al zenuten ezkondu zinetenean?

Bai zera! Ezkondu eta gero ganbara bat hartu genuen -eta kostata!- eta guk atondu genuen guztia. Oso polita geratu zen! Gainera ez genuen dena pagatzerik izan, eta, zorraz kitatzeko, Iruñera joan



behar izan nuen lanera. Gero, lagun batek lana aurkitu zidan Elgoibarren eta bertara etorri nintzen Txitxarronera lanera, eta ondoren, handik Sigmara; bertan lana, jornal handiagoa -700 pta astean- eta etxebizitza eskaini baitzizkiguten. Itsua-itsuan joan ginen hara!

### Kontatzeko moduko pasadizo xelebrerik gogoratzen al duzue?

Bai!, eztei-bidaiatik larunbat batean bueltatu ginen eta, hurrengo egunean, igandea zenez, mezetara joan ginen. Nik (Iñaki) bidaiatik sobratutako hogeitatu duroko billetea nuen poltsikoan, eta elizan pañueloa ateratzen edo...kontua da etxera heldu eta...aiba diez! Hogeitatu durokoa falta. Apaizari deitu genion eta pulpitutik abisu eman zuen, baina alferrik. Ondo aprobetxatuko zuen topatu zuenak!

### Urrezko ezteiak joan zen urtean ospatu zenituzten.

Bai! Orduan bizitza osorako ezkontzen zen, eta, gu behintzat, oso pozik; pentsa, 50 urte elkarrekin egoteko!Bazkari eder batekin ospatu genituen Aubixan.

# Gogoetak

DENBORA JOANEAN DOA ORAINA IRAGAN ETA ETORKIZUNA ORAIN BIHURTUZ. JOAN ZIREN ERROMERIA GARAIK, ETA BEREKIN GONAZPIKOEN PUNTILAK, ABARKAK ETA TOBEREN HOTSAK...JOAN ZIREN ETXEO KOMEDOREETAN OSPATZEN ZIREN EZTEIAK ERE, SEGURASKI, GAUR EGUNGO KOMEDOREAK TXIKIEGIAK DIRELAKO HORRETARIKO. METRO KARRATUAREN PREZIOA EZ DAGO TXANTXETARAKO...JOAN ZIREN BILBORA LEHENGUSUENERA EGINDAKO EZTEI-BIDAIA ERROMANTIKOAK, SOINEKO BELTZAK ETA BIDAIAIK BUELTAN SOBRATUTAKO EHUN PEZETAKO BILLETEAK...JOAN ZIREN. GUZTIAK JOAN ZIREN.




**Gaur** egungo bikoteak ez dira trikiti-doinuek sorginduta maitemintzen, hori ez dago modan. **Ez.** Ordenagailuko pantailaren beste aldeko amoranteak sortu dira garaiotan, sakelako telefonoko mezueta 160 karakterekin maitasun-deklarazioak egiteko

gai diren artistak...Baina ez gaitzen horren gaiztoak izan, maitasuna maitasun baita edozein garai eta edozein mozorroren azpian. Eta gaur, atzo eta bihar bezala, jendea maitemindu egiten da. Eta maitemindu batzuk ezkondu egiten dira, elizatik zein zibiletik.

Badira lehenengo lege zaharrea ezkontza txikiak egiten dituzten batzuk, ospakizun exotikoagoak nahiago izaten dituzten beste batzuk ere bai, baina, ezkontza gehienak, dudarik gabe, makroezkontza erraldoiak izaten dira. Gonbidatuak barra-barra, soineko eta orrazkera ikusgarriak, jatetxe dotoreak, jaki eta edariak sobera, milaka argazki, urruneko txokoetara bidaia garestiak...

Batzuen aburuz kapitalismoaren fruitu hutsal dira; beste batzuen iritziz, ordea, maiteminduentzako egun zoragarri horrek ez du gutxiago merezi. Dena den, gaur egungo ezkontzak dira, ez gehiago, ez gutxiago, eta azken finean, maitasunaren adierazpenari forma norberak ematen dio. Beraz, zoriontasunaren formaren inguruan ez gara eztabaidan hasiko, ez?



**muriu er  
iwprim•oleuiot**

TIPOGRAFIAN eta OFFSETEAN

ERA GUZTITAKO INPRIMAKIAK

Santa Klara, 28 behea

Tel.: 943 74 42 92

Faxa: 943 74 43 41

ELGOIBAR





# CORTE BLANCO

senargaiak

*Senargaiak,  
aitabitxiak, amabitxiak  
eta gonbidatuak*

*TAILA HANDIAK, 61ra arte. LUZEERA BEREZIAK.*

*GIZONEZKOA • Triunfo, 3  
EMAKUMEZKOA • San Martin, 50  
TALLISIMA • San Martin, 50*

**DONOSTIA • Tel. 943 46 40 91**



## Maribel Aldaronr<sup>A</sup>

*emaztegai  
amo*

**Ezkonu behar al duzu?**

**Maribel Aldarondok ernaztegiarentzako  
soinekoen bilduma ikusgarria eskeintze**

**Bilduma zabala amabitxientzat  
neurritan egindako soinekoak**

**Arrasate, 38 . tel. 943 42 63 27 20005 Donostia**

**Ordua aurrez  
eskatu**

# ESKAINZA BEREZIA

- %100 latexko koltxoia
- 15 zm.-ko lodiera
- Funda aldagarria



90 zm.

**297 €**

(49.416 pzta.)

135 zm.

**393 €**

(65.389 pzta.)



- Egurrezko somierra
- Elektrikoa 5 posizio
- Tako baskulagarriak



- %100 latexko koltxoia
- 15 zm.-ko lodiera
- Funda aldagarria

90 zm.

(125.122 pzta.)

135 zm.

**909 €**

(151.244 pzta.)

- Malgukizko koltxoia
  - Pike oihala
- +
- Gurpildun kanape iraulgarria
  - Pike oihala



*Burko bat opari*

90 zm.

**507,75 €**

(84.438 pzta.)

135 zm.

**643,15 €**

(107.012 pzta.)

## LAGUNAK

San Roke kalea, 20  
tel: 943 74 44 57  
ELGOIBAR

*el desván*

Gipuzkoako hiribidea, 12  
tel: 943 17 02 08  
ERMUA



# APIRILA

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bidali e-postaz [barren@topagunea.com](mailto:barren@topagunea.com) helbide elektronikora.

## JAIOTAKOAK

Marina Mugarza  
San Juan  
Apirilak 21  
Juan Carlos eta  
Maria Jose

Naroa Lopez  
Saborido  
Apirilak 20  
Francisco eta  
Adela



Roke Iriondo  
Gabiola  
Apirilak 5  
Iriaki eta Silvia

Zuhaitz Leyaristi  
Egaña  
Apirilak 20  
Jesus Maria eta  
Ainhoa



Onintza Ribao  
Viria  
Apirilak 15  
Francisco eta  
Blanca



Unai eta Josu Fresnedo  
Astigarraga  
Apirilak 25  
Antonio eta Jaione

## HILDAKOAK

Antonio Gurrutxaga Ibagutxi,  
43 urte, apirilak 4

Txomin Gorriti Agirre, 77  
urte, apirilak 6

Francisca Gabilondo,  
89 urte, apirilak 8

J. M. Esnaola Larreategui,  
73 urte, apirilak 19

Jose Aldalur Carrera,  
91 urte, apirilak 19

Jose Maria Esnaola Larreategi,  
73 urte, apirilak 19

Marci Godoy Callejo,  
63 urte, apirilak 20

Satur Viñaras de Pablo,  
63 urte, apirilak 22

Jose Ramon Ortuoste,  
78 urte, apirilak 23

Secun Arcauz Murgiondo,  
80 urte, apirilak 27

Jose Mari Zubiaurre Muguerza,  
79 urte, apirilak 28

## EZKONTZAK


Enrike Anchustegui Igartua eta  
Alicia Iglesias Iruretagoy  
Apirilak 5

# ETXEBERRIA

## Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

**KUTXAK • TRASLADOAK • KOROAK**



NORBANAKOEI  
eta KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak.

Donostia eta  
probintziako  
erietxe zentroetan  
ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56

Mobila) 608 77 07 01



## ARKAUZ PP Alcerdiko zerrendaburua "Proiektu gaztea aurkezten dugu, berritzailea"

**Adina:** 24 urte.

**Jaioterria:** Arrasate (Gipuzkoa).

**Ikasketak:** Zuzenbidean Lizentziatua.

**Lanbidea:** Donostiako enpresa batean dihardu Zuzenbide Merkantil praktikak egiten.

**Egoera zibila:** Ezkongabea.

**Zaletasun bat:** Ehiza xehea.

**Liburu bat:** "El arbol y las nueces"

**Kirol bat:** Futbola.

**Janari bat:** Denetarjk.

Elgoibarren zer dago faltan? Zer soberan?

Etxebizitza eta enpresak eraikitzeko lurra falta dira. Soberan, langabezia eta asteburuetan izaten den droga giroa.

Elgoibarko zein txoko erakutsiko zenioke kanpotar bati? Eta zein ezkutatuko?

Inguruko mendiak eta alde zaharra erakutsiko nioke. Ezkutatzeko moduko kontu bat, Deba ihaiko kutsadura izan daiteke.

Defini ezazu zure burua bi hitzetan? Gaztea, jatorra eta baikorra.

Zein da azken aldian entzun duzun berririk onena? Eta txarrena? Txarrenak Prestige itsasontziaren hondoratzea eta Irakeko gerra izan dira. Albisterik onena, Real bigarren postuan dagoela berriro.

Zein izan da zure bizitzako unerik onena?

Momentu asko ditut gogoan, baina bat aukeratzekotan, elgoibartarrek zinegotzi moduan aukeratu ninduten egunarekin gelditzen naiz.

Zein egunkari irakurtzen duzu? Diario Vasco.

Zein miresten duzu?

Adolfo Suarez. Urte gogorrak bizitzea tokatu zitzaion, eta oso ondo moldatu zuen Estatua. Momentu latzetan lan handia egin zuen politika alorrean.

**"Momentu asko ditut gogoan,  
baina elgoihartarrek zinegotzi  
moduan aukeratu ninduten  
egunarekin gelditzen naiz"**

Praktikatzen al duzu kirolrik? Zein?

Lagun artean futbola; eta bestela, eskiatzea ere asko gustatzen zait.

Etxeko lanik egiten al duzu? Zein?

Gurasoekin bizi naiz, eta ez dut etxeko lan askorik egiten, baina egunero sukaldeko mahaia ipini eta jasotzen dut.

Emaiguzu arrazoi bat maiatzaren 25ean zuri botoa emateko.

Proiektu gaztea aurkezten dugu, berritzailea. Zerrendako guztiak oso gazteak gara, eta politika egiteko modua aldatzeko gogoarekin gatoz. Elgoibarko lanak hartuko ditugu kontuan, herria bera da guretzat garrantzitsua. Udalbiltza edo beste hainbat Elkarte Soberanista bigarren esparru batean geldituko lirakeke. Herri Politika egin nahi dugu.

Elgoibarko Alkate aukeratzeko bazaituzte, zein izango da egingo duzun lehenengo gauza?

Lehenengo gauza botoa eman didatenak eskertu. Ondoren gazteei begira enpresa berriak sortu, lanpostu berriak, lan poltsak, proposamen ekonomiko berria, eta Euskal Herri mailan inbertitzen dugun dirua, Elgoibarren inbertitzen saiatuko nintzateke, hau da, Udalbiltza eta mota horretako erakundeei ematen diegun dirulaguntza herrira ekarriko nuke. Azken finean, elgoibartarren bizitza kalitate hobetzen saiatuko nintzateke.

**PROGRAMAREN 5 PUNTU GARRANTZITSUENAK**

**Etxebizitzak:** Babes ofizialeko etxebizitzak bultzatu, bizilagunekin adostuta.

**Azpiegiturak:** Aparkalekuen arazoa konpondu. Aparkaleku publikoa egin, kanpotik datorren jendearentzat, gaur egun ez baitago aparkatzeko leku nahikorik. Baserrietara ura eraman, bideak asfaltatu...

**Euskara:** Gazteen artean euskara bultzatu, baina ez inor baztertzeko tresna moduan erabili. Euskara gaztelania beste erabiltzea, biak batera.

**Gaztedia:** Gazte informazio Gune bat sortzea, berak dauzkan gai guztiei buruzko informazioa emateko. Lana, etxebizitzak...

**Lana eta ekonomia:** Gazteak lan merkatuan sartzeko ikastaroak antolatu, enpresa berriak sortu, parke industrial berriak, lan poltsak...





IGOR IRIGOIEN e:zker Batua Aiderciko zerrendaburua

## "Demokrata, ezkertiarra eta koherentea nalz"

**Adina:** 27 urte

**Jaioterria:** Bilbo

**Ikasketak:** Zuzenbidean Lizentziatua

**Lanbidea:** Garapen eta Elkarlanerako Zuzendaria

**Egoera zibila:** Ezkondua

**Zaletasun bat:** Irakurketa, zinema eta lagunekin solasean aritzea.

**Liburu bat:** Isabel Allenderen 'Retrato en sepia'.

**Kirol bat:** Atletismoa.

**Janari bat:** Makailua marinera erara.

Elgoibarren zer dago faltan? Zer soberan?

Eraikitzeo lur saila dago faltan Elgoibarren, eta soberan autoak eta kutsadura.

Elgoibarko zein txoko erakutsiko zenioke kanpotar bati? Eta zein ezkutatuko?

San Migel, San Pedro, Azkarate... eta San Bartolome eliza erakutsiko nizkioke.

Ezkutatu, berriz, hainbat auzotara iristeko dauden bide eskasak eta Deba ibaiak Elgoibartik pasatzean daukan kutsadura.

Defini ezazu zure burua bi hitzetan? Lasaia eta xumea.

Zein da azken aldian entzun duzun berririk onena? Eta txarrena? Berri onena, Irakeko Gerraren aurkako

mobilizazio guztiak. Txarrenak, gerraren hasiera eta terrorismoarekin erlazionatutako berri guztiak.

### "Bere printzipioetan oinarrituz bizi eta etikoa den edonor miresten dut"

Zein izan da zure bizitzako unerik onena?

Ezkonduta nintzen eguna.

Zein egunkari irakurtzen duzu? Denak irakurtzen ditut.

Zein miresten duzu? Bere printzipioetan oinarrituz bizi eta etikoa den edonor miresten dut.

Praktikatzen al duzu kirolrik? Zein? Atletismoa.

Etxeko lanik egiten al duzu? Zein? Bai, ahal dudana guztia egiten dut.

Emaiguzu arrazoi bat maiatzaren 25ean zuri botoa emateko.

Demokrata, ezkertiarra eta koherentea naizela.

#### PROGRAMAREN PUNTU GARRANTZITSUENAK

**Garapenaren bidean lan egin, kutsaduraren aurka, ingurugiro garbi baten alde borrokatu.**

**Behartsuenen alde borrokatu, bazterketa sozialaren aurka.**

**Bakearen alde borrokatu, pluraltasunez eta inor baztertu gabe.**

E11/4

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa


San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

**Mandiola Egurrak S.L.**

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA

BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 1:r 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

## Oskorriren "The Pub Ibiltaria" 7. saioa gaur izango da Herriko Antzokian Herri kantuak berreskuratzeko asmoz martxan jarritako proiektua da

**E**lgoibarko Udalaren Euskara Batzordeak, "Euskal Kantagintza" egitasmoarekin jarraituz, gaur, maiatzaren 9an, Oskorriren zazpigarren "The pub ibiltaria" saioa antolatu du. "The Pub Ibiltaria" bildumaren zazpigarren aleak 18 kanta jasotzen ditu. Horietako batzuk galdua zeuden eta berreskuratu egin dituzte transmisioa helburu duen lan honetarako. Hala ere, kantuen artean badira batzuk ezagunak direnak: "Boga boga", "Lau aeroplano pasata", "Behin batian Loiolan", "Galtzaundi"...

Herri kantuak berreskuratzeko asmoz, Oskorri proiektu berri bat jarri zuen martxan 1997an, hain zuzen, "Oskorri & The pub ibiltaria" deitzen dena. Kantaldi honetan, Oskorriko partaideekin batera, bai edozein instrumentu jotzen nahiz kantari moduan agertu nahi duten guztiek parte hartzeko aukera izango dute. Beraz, kontzertu irekia da eta publikoa kantaldiko protagonista bihurtzen da.



Udalaren Euskara Batzordeak Oskorriren kantuen liburuxka (testua eta partiturak dakarrena) banatu du ikastetxe, euskaltegi eta beste elkarte batzuetan

elgoibartarrek kantuak ikasteko denbora izan dezaten. Saio hau ikusteko aukera izango dugu gaur, maiatzaren 9an, gaueko 22:15ean, Herriko Antzokian.

## Elgoibarko Itxaropena Abesbatzak Donostiako Artzai Onaren elizako organoa zaharberritzeko dirulaguntza eman du

**Donostiako** Artzai Onaren elizako organoa egoera kaskarrean zegoenez Gipuzkoako hainbat abesbatza eta elkarteri dirulaguntzak eskatu zizkieten bertako arduradunek. Elgoibarko Itxaropena Abesbatzak ere jaso zuen laguntza eskaera eta baita dirulaguntza eman ere. Laguntza honen ordainetan Artzai Oneko parrokoak, Bartolome Auzmendik, sinatutako esker oneko diploma bat jaso dute Itxaropenakoek. Bertan adierazten denez, Elgoibartik bideratutako dirulaguntzak Sol notari dagokion eztainuzko hodia zaharberritzeko balio izan du. Bide batez, Itxaropena abesbatzako arduradunek jende beharrean daudela gogora arazi digute.



Inork abesbatzako partaide izan nahiko balu entsaioetara agertzea besterik ez du. Asteartetan izaten dira entsaioak

20:00etatik 22:00etara bitartean, Plaza Txikian (ezkerreko atetik sartuta lehen pisuan).



## Josu Espilak bigarren postuan amaitu zuen Oñatito Igericeta Txapelketa

**E**lgoibarko Igeriketa taldeko partaideek Oñatiko Igeriketa Txapelketan hartu zuten parte. Oñatikoa denboraldiko azken txapelketa izan zen eta elgoibartarrak fin aritu ziren denboraldi guztian moduan. Benjamin mailako igerilariek 100 metro libreko proban parte hartu zuten eta alebinek 50 metro tximeleta eta 100 metro estiloetan. Benjamin mailan Josu Espilak 1:29:29 denbora bikainari esker sailkapen orokorreko bigarren postuan amaitu zuen. Alba Zangituk ere denbora oso ona egin zuen 1:37:37 eta sailkapeneko 4. postua eskuratu zuen. Ainhoa Agirrek ere denbora



aipagarria egin zuen (1:47:06) eta 9. postuan sailkatu zen. Alebin mailan Jagoba Egañak 50:95 denbora egin zuen 50 metro tximeleta estiloko proban eta 1:49:39 100 metro estilotako proban.

### Eskola Kirolarentzako dirulaguntzak ikastetxeen artean banatu dira

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak ikastetxeei Eskola Kirolean koordinatzaileen kontratazioa bultzatzeko dirulaguntzak banatu zituen pasa den Aste Santua baino lehen. Dirulaguntza hauek ikastetxe bakoitzeko ikasle parte hartzaileen arabera banatzen dira. Elgoibar Ikastolako 164 ikaslek parte hartzen dutenez, dagokion dirulaguntza 1.596 eurokoa da, Pilar ikastetxeak 98 parte hartzaile dituenek, 953 euro dagozkio eta Herri Eskolan 66 ikaslek izena eman dutenez, 642 euroko dirulaguntza jasotzen du. Diru hau hiru ikastetxeek Eskola Kiroleko koordinazio lanetarako pertsona egokiak kontrata ditzaten bideratzen du Udal Kirol Patronatuak. Aste Santua baino lehen dirulaguntza horren erdia banatu zen eta ikasturte bukaeran falta dena banatuko da.

### Eskualdeko Futbol 7 Txapelketan izena emateko epea zabalik

Ekainaren 7an hasiko da Eskualdeko **Futbol 7** Txapelketaren 6. edizioa. Mintxeta eta Eibarko Unbe futbol zelaietan jokatuko dira partiduak eta finala uztailaren 22an izango da. Izena emateko epea maiatzaren 29an bukatuko da eta Olaizaga Kiroldegian edo Eibarko Unben eman daiteke. Gehienez 32 taldek eman ahal izango dute izena.

### EMAITZAK

#### Futbola

Ordizia 0 - Haundi 0 (Pref.)  
Haundi 1 - Tolosa 2 (Pref.)  
Touring 3 - Haundi 0 (Pref.)  
Mutriku 1- Elgoibar 2 (1. erreg.)  
Elgoibar 7 - Zestoa 0 (Jub.)  
Urola 2 - Elgoibar 0 (Kad.)  
Elgoibar 1 -Antiguoko 1 (Inf.)  
Ilixtxa 0 - Elgoibar 2 (Neskak)

#### Eskubaloia

Bergara 23 - Tecnifuelle Elg. 24 (Sen. mut.)  
Urola 20 - Tecnomeca Elg. 22 (Kad. mut.)  
Tecnifuelle Elg. 14 - Arrate 18 (Sen. mut.)  
Pagoaga Elg. 29 - Pulpo 9 (Kad. nesk.)  
Pneumax Elg. 22 -Arrate 18 (Jub. mut.)  
Bergara 19 - Gaur Elg. 14 (Jub. mut.)  
Tecnifuelle Elg. 19 - Eguia 28 (Sen. mut.)

#### Esku pilota

##### Debarroko Txapelketa

Txurruka/Portu 22 - Sarmanton/labaka 3 (Eibar)  
Ansola/Balzola 3 - Etxaniz/Bengoetxea 22 (Eibar)

#### Areto futbola

Lanbroa 4- Cocinas Urarte 2 (1. maila)  
Etxadi 2 - Lojantzi 5 (Jub.)  
Kenci Elg. 3- Metales S. Jorge 8 (Nazional B)  
Salcedo 2- Kenci Elg. 3 (Nazional B)  
Nevada Venta Berri 2- Lanbroa 7 (1. maila)

### AGENDA

#### Futbola, Mintxetan

Zapatua, 10  
16:30 Haundi - Amaiak Bat (Pref.)  
Domekla, 11  
10:30 Elgoibar - Ermua (Aleb.)  
12:00 Elgoibar - Orioko (Kad.)  
16:00 Elgoibar- Intxurre (1. erreg.)  
18:00 Elgoibar- Urola (Neskak)

#### Areto futbola, Kiroldegian

Barixakua, 9  
22:10 Lanbroa - Allerru (1. maila)  
Zapatua, 10  
16:00 Kenci Elg. Virgen de Vico (Nazional B)

Cordon, Vilarchao, c.b.

DEICORAZIC\* A

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,  
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,  
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70



URKIDI AHOLKULARITZA

KONTABILITATE  
LAN  
FISKAL

Kalamua, 12 • ELGOIBAR  
Tel-Faxa: 943 74 18 91

„THE  
HARTFORD  
ASEGURUAK

## Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Markinako enpresak obra ardura behar du. Erref. 96823/2

Durangoaldeko aldi baterako enpresak sukaldari laguntzailea behar du. Erref. 99964/4

Debabarreneko enpresak iturgin laguntzailea behar du. Erref. 100156/3

Durangoaldeko enpresak CNC mantenimendurako langilea behar du. Erref. 100653/4

Durangoaldeko enpresak 2 tomero behar ditu. Erref. 100677/3

Debabarreneko enpresak supermerkatuak langilea behar du. Erref. 100693/2

Debabarreneko enpresak supermerkatuak langilea behar du. Erref. 100696/2

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauek batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) 943 74 80 19 edo IMH (Nora Raman) 943 74 41 32 telefonora.

## Lana

### ESKAERA

sEmakumea lanerako prest. Tabernan, jatetxean, nagusiak eta haurrak zaintzen esperientzia daukat. ☎ 630 725 244

◆ Emakumea orduka garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 630 725 244 (Araceli)

◆ Emakumea haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. Esperientzia eta erreferentzia onak. ☎ 626 91 49 04 (Rosa)

\*Emakumea gaixoa zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. ☎ 943 03 03 21 (Mertxe)

◆ Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 943 74 35 05 (Justa)

◆ Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 660 69 53 03 (Marta)

### ESKAINZA

\*Kamareroa behar da. ☎ 943 74 42 65

\*Asteburuetarako sukaldaria behar da. ☎ 12 943 74 42 65

◆ Kamareroa behar da. ☎ 943 74 26 21

## Etxebizitzak

\* Etxea hartuko nuke alokairuan. ss- 943 03 03 21

◆ Nafarroan, Lizarratik gertu dagoen landetxe batean logelak eskaintzen dira. ☎ 699 18 75 68

◆ Etxea salgai Elgetan. Eraikuntza berria, 90m<sup>2</sup>. Sukaldea, jantoki-saloia, 3 logela, 2 bainugela. Garajea eta trastero handia. Sukalde eta jantokitik balkoira irteera. Izugarritzko bistak mendi aldera. ☎ 94 658 34 72/615 74 50 72 (15:00etatik aurrera. Josune)

\*Etxea salgai Elgoibar erdialdean. Era-berritua, altzariekin. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ 661 42 60 77

\* Logela alokatzen da..a. 943 74 18 81

\*Logela alokatzen da. 73 699 91 31 69 fEb<ea salgai Elgoibar erdialdean. 3 logela, sala, komuna, despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. Merkea. ☎ 679 29 13 79

## Bestelakoak

◆ Karakaten apirilaren 28an, arratsaidean, iturri inguruan erloju bat aurkitu nuen. Jabeak deitu dezala. ☎ 943 74 16 64

\*Txori bat topatu dut ikastolarako bidean. ☎ 635 72 00 91

◆ Urrezko eraztuna galdu dut. Ezti koloreko perla bat dauka..a. 943 74 44 06

◆ Apirilaren 4an, 11:00 eta 11:30ak bitartean erlojuja galdu nuen Kiroldegian. Balio sentimental dauka. Saritu egingo da. ☎ 943 74 45 21 (M<sup>2</sup> Jose)

• Flauta galdu dut. Lanazko funda txuri gorria dauka, K letrarekin. ☎ 943 74 04 34

## OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

## Salerosketak

11 2. eskuko pianoa erosiko nuke. Egoera onean. ☎ 943 74 05 37

\*Opel Vectra autoa salgai. Egoera onean. ☎ 616 16 77 60

\*Senar-emazte logela salgai. Konplettoa (ohea, armairua, mahaitxo...). Oso merke. ☎ 943 74 20 30 (Lucia)

\*Opel Calibra 2.0 16v, 160 cv salgai. Full Equipe, 17" lantak, motor berria, 31.000 km. Oso egoera onean. ☎ 661 62 62 60

4 Alcatel mobila salgai. Prezio onean. ☎ 637 11 01 97

◆ 2. eskuko kotxea salgai. ☎ 658 70 33 42

• Karabana salgai. Katusa 3750. ☎ 943 74 21 64

◆ Kotxea salgai. Rover 216, GSI. Merkea. ☎ 635 72 30 26

◆ Renault Clio 1.2 salgai. ☎ 653011043

◆ Nissan Serena 1.6 gasolina salgai. 2500 euro. ☎ 669 166 207

## Lokalak

◆ Txabola alokatzen da Urasandin, txakurrak gordetzeko oso egokia. Merkea. ☎ 661 62 62 60

\*Madalako etxe berrietan 5,5 m<sup>2</sup>ko trasteroa alokairuan. ☎ 605 77 34 53



Eus a • unagoa?  
Oso zaila dago  
Independenteagoa?  
Ez da erraza.  
Pluralagoa?  
Zein • z in plurala?  
Hobea?  
Hoherena zen.

**berria berri**

**baina  
hobetuko  
du u  
zure laguntzarekin**

Akzioei buruzko informazioa:

[www.ektsa.net](http://www.ektsa.net)

Tf: 635 733 385 · 635 733 386



# agurrak

• Zorionak **Alberto!** 30 urte maiatzaren 2an. Gora zure kitarrari. Kristolako mutille zaz, edozergaitik ein leike zugaz berba, oso konprensibu eta kariñosue zaz, en fin, itzalezko mutille! Gehiexen gustaten jatena da esaten doztezuzen berbak barru-barrutik urteten dotzuzela, eta ez dala ondo geratzeko. Ez dezu imaginau be eitxen zenbat aprezixetan dotzuten. Zorixonak Markinako lagunen partetik.

\*Zorionak **Lide Baz Salegiri.** Oso ondo pasa dezazula zure 1. Jaunartze egunean. Elgoibar-ko Baz familiakoen partez.



• Zorionak **Alazne Perez Madariagari**, apirilaren 30ean 7 urte bete zenituelako. Gurasoen eta ahizparen partez.



\*Zorionak **Naia Membrillerrari**, gaur, hilak 9, 11 urte bete dituelako. Gurasoen partez belarritik tirakada fuerte bat. Ondo pasau eta gutxi gastau!



\*Zorionak **Maider**, maiatzaren 8an 3 urte bete zenituelako. Familiakoen, eta bereziki anai-arreba Harkaitz eta Eneritz, eta lehengusina Saray, Eider, Ane eta Noraren partez.



♦ Zorionak **Andoni txikiaril** Espero dugu ondo pasatu izana zure 2. urtebetetzean. Aita, ama, Imanoltxo eta aitxibcaren partez muxu handi bat.



♦ Zorionak **Mikel Anakabe**, hilaren 5ean 11 urte bete zenituelako. Familiakoen eta bereziki lehengusu Ionon partez.



• Zorionak **Amaia**, neska haundi, hilaren 8an 4 urte bete zenituelako. Aneren eta etxekoan partez.



• Zorionak **Olatz Altzerrekari**, maiatzaren 7an urtebete egin zuelako. Gurasoen, lehengusu Ion, Asier eta Unaiaren partez.



\*Zorionak **Julene**, maiatzaren 3an 4 urte bete zenituelako. Familiakoen eta bereziki Nerearen partez.



♦ Zorionak **Nereari**, maiatzaren 2an 2 urte bete zituelako. Mila kilo zorion familiakoan partez.



\*Zorionak **Aitor**, maiatzaren 1 3an 7 urte egingo dituzulako. Familiakoan partez muxu handi bat.



• Zorionak **Joseba!**



• Zorionak **Txapeldun!** Bihar, hilak 10, 7 urte beteko dituzulako. Etxekoan eta bereziki Kimetzen partez.



Zorionak **Mariari**, maiatzaren 7an urtebete egin zuelako. Gurasoen, eta bereziki anaia Jonen partez.



• Zorionak **Aner**, apirilaren 30ean 2 urte bete zenituelako. Gurasoen eta bereziki lagunen partez.



• Zorionak **Maialen**, apirilaren 30ean 3 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiakoan partez.



\*Zorionak **Ander Astigarragari** igandean!. Jaunartzea egingo duelako. Ondo pasa eguna. Alaitz eta Irati lagunxoan partez.



\*Zorionak **Eider**, joan zen apirilaren 30ean 6 urte bete zenituelako. Orain arte bezalako jator jarrai dezazula! Gurasoen, eta bereziki zure ahizpa Sarayren partez.



• Zorionak **Garaziri**, maiatzaren 5ean 8 urte bete zituelako. Familiako guztien partez.



\*Zorionak **Saray Rodriguez**, igandean zure 1. Jaunartzea egingo duzulako. Familiakoan, gurasoen eta izugarri maite zaituen ahizpa Eiderren partez.



♦ Zorionak **Nora Kortaberria Bilbaori** 6 urte betetzeagatik gurasoen partez. Nia, zorionak! 6 urte... ze nagusial Pa! Aña.



♦ Zorionak **Maialen**, hilaren 4an 9 urte bete zenituelako, eta baita igande honetan 1. Jaunartzea egingo duzulako. Muxu handi bat etxekoan partez.



• Zorionak **Unai** eta **Ane** zuen urtebetetze egunean. Familiakoan eta lagunen partez muxu handi bat.



• Zorionak **Ainhoa** eta **Oihaneri**. Bion urtebetetze izan da, eta dagoeneko urtebete gehiago daukazue. Gurasoen eta familiako guztien partez zorionak.

## Farmazia - okindegia

EGUNEZ	GAUEZ	FARMAZIAK
9 Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria	ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
10 Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria	FERNANDEZ, Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
11 Etxeberria (Santa Ana kalean)	Fernandez	ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
12 Zabaleta	Zabaleta	
13 Yudego	Yudego	
14 Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria	
15 Ibañez	Ibañez	<b>OKINDEGIA</b> 11 Igandea Doña Mercedes
16 Bidasolo	Bidasolo	

## JAIK

I bilaldi ra autobusa

Aurtengo Ibilaldia Lekeition izango da maiatzaren 18an, domekan. Elgoibarko Izarra Kultur Elkarreak Bizkaia aldera joateko autobusak antolatu ditu Elgoibarko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz. Goizeko 9:30ean aterako da autobusa Elgoibartik eta arratsaldeko 20:00etan izango da itzulera ordua. Prezioa 9 eurotakoa da (6 euro elkarteko bazkideek). Izena emateko azken eguna maiatzaren 16a izango da eta Elgoibarko Izarran bertan eman daiteke edo honako telefonora deituz: 943 74 16 26.

## IKASTETXEAK

Helduen Eskolako matrikula

E.P.A. Helduen Hezkuniza eskaintzen duen zentruak zabalik du matrikula epea. Maiatzaren 5ean ireki zen aurreinskripzioarako aukera eta maiatzaren 16ra arte iraungo du. EPAk Usetxe kalean "Pedro Muguruza ikastetxea z/g" dituen lokaletara joan daitezke interesaturik daudenak edo honako telefonora deitu: 943 74 08 80 (15:30etatik 20:30etara). Besteak beste, alfabetazea, atzerritarrentzako ikastaroak (gaztelera ikasi, irakurtzen eta idazten), kultura orokorra zabaltea edota Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua eskuratu ahal izango dute izena ematen dutenek.

## 9 BARIXAKUA

21:30 UMOREZKO MONOLOGOAK

Taldea: Axeri taldea

Gaztetxea bota zuteneko 13. urteurrena

Gaztetxean

Antolatzailea: Gazte Asanblada

22:15 KONTZERTUA

"The Pub Ibiltaria 7"

Herriko Antzokian

## 10 ZAPATUA

19:00 KONTZERTUA

Gaztetxea bota zuteneko 13. urteurrena

Gaztetxean

Antolatzailea: Gazte Asanblada

## 16 BARIXAKUA

22:00 ZINE FORUM-A

"Cena entre amigos"

Kultur Etxean

Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

ZINE  
kluba



## "Lejos del cielo"

Zuzendaria: Todd Haynes.

Antzezleak: Jullanne Moore, Dennis Quaid, Patricia Clarkson.

50. hamarkadako Estatu Batuetan girotutako filme honek etxeokandrea pribilegiatu baten istorioa kontatzen du. Hain zuzen garai haietako Hollywoodeko drama handietan oinarritutako filmea da. Whitaker familia erdi mailako amerikar sendi tipikoa da. Gizarte ospakizun guztietan parte hartzen saiatzen dira eta baita inguratzen dituztenen bizi maila jarraitzen ere. Cathyk belarzain beltzarekin duen erlazioa sendotzen joan ahala txutxumutxuak handituz joango dira herrian.





## KONTZBITUAK

Rolling Stones

Rolling Stones talde mitikoak ekainaren 25ean Bilboko San Mames futbolzelaian eskainiko duen kontzertua ikustera joateko autobusa antolatu dute elgoibartar batzuek. Kaia tabernan eman daiteke izena ekainaren 18a baino lehen. Informazio gehiago nahi izanez gero honako telefonora deitu 943 74 02 33 (19:00etatik aurrera).

## IKASTAROK

Akuarela ikastaroa

Egur Arte Tailerrak akuarela ikastaroa antolatu du. Maiatzaren 12tik 30era bitartean luzatuko da 30 ordutako ikastaroa. Ordutegia, berriz, 18:00etatik 20etara bitartean izango da. Elgoibarko Udalak diruz lagundutako ikastaroa da eta egin nahi duenak Egur Arte tailerrean eman dezake izena (Ubitarte Plaza z/g). Izenemate ordutegia: arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

Buztin ikastaroa

Lurki Zeramika E]karteak buztin ikastaroa antolatu du. Tornua erabiltzen ikasteko teknikak irakatsiko dira hastapen ikastaro honetan. Klaseak maiatzaren 6an hasi eta ekainaren 5ean amaituko dira. Astelehenetik ostegunera izango dira 18:00etatik 21:00etara. Informazio gehiago 677 466 344 telefonoan.

## OSPAKIZUNAK

Gaztetxea bota zuteneko urteurrena

Madalako Gaztetxea bota zuteneko 13. urteurrena beteko da maiatzaren 9an, barixaku honetan. Hainbat ekintza antolatu dituzte Gazte Asanbladakoek astebururako. Gaur, hilak 9, umorezko monologoak izango dira Axeri taldearen eskutik 21:30etan Gaztetxean. Zapatuan, hilaren 10ean, kontzertua izango da Gaztetxean 19:00etan.

Egunkariaren aldeko kros sinbolikoa Mendaron

Arno Guraso Taldeak, In Leikek, San Jose Ikastolak, Mendaroko Udalak eta Lagun Betikoak antolatuta, Egunkariaren aldeko kros sinbolikoa izango da Mendaron zapatu honetan, maiatzaren 10ean. Arratsaldeko 17:00etan hasiko dira lasterketak frontoian eta 6 urtetik 16 urtera bitarteko korrikalari gaztetxoek hartuko dute parte.

1953ko kintoak

53ko kintoek, aurten 50 urte bete dituzten elgoibartarrek jaio zireneko urrezko ezteiak ospatuko dituzte maiatzaren 31n. Elkar ikusi, kontu zaharrak eta berriak elkarri esan eta hemendik aurrerakoak bideratzeko une aproposa izango da. San Bartolome parrokian hasiko dute ospakizuna joan diren elgoibartarrak gogoratuz. Irteeran argazki bat aterako dute eta Biar Dana elkarteak "lunch"a egin. Ondoren, Harzubi jatetxean izango da bazkaria. Prezioa 68 eurokoa da. Parte hartu nahi dutenek honako kontuan sartu beharko dute dirua maiatzaren 25a baino lehen: Euskadiko Kutxa 3035.0007.26.0071028541 (Elgoibarko bulegoan hil bakoitzeko 10a eta 25a bitartean, goizez bakarrik sartu ahal izango da dirua). Informazio gehiago: Arantza Mugika (943 74 08 49 9:00etatik 12:30etara eta 16:30etatik 20:00etara).

ELGOIBAR, Herriko antzokia

### "Frida"

10, zapatua: 19:30-22:15

11, domekia: 19:30-22:15

12, astelehena: 22:15

"Lejos del cielo" (Z.K.)

15, eguena: 22:15

"Chicago"

16, barixakua: 22:15

EIBAR, Unzaga

### "Antwone Fisher"

9, barixakua: 19:30-22:15

10, zapatua: 17:00-19:30-22:30

11, domekia: 17:00-19:30-22:30

12, astelehena: 19:30-22:15

13, martitzena: 19:30-22:15

14, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, Rialto

### "X-Men 2"

9, barixakua: 19:30-22:15

10, zapatua: 17:00-19:30-22:15

11, domekia: 17:00-19:30-22:15

12, astelehena: 19:30-22:15

13, martitzena: 19:30

14, eguaztena: 19:30



## "Frida"

Zuzendaria: Julie Taymor.

Antzezleak: Salma Hayek, Alfred Molina, Geoffrey Rush.

Frida Kahlo (Salma Hayek) artista mexikarraren bizimodua kontatzen du filme honek. Bertan Diego Rivera muralgile ezagunarekin izandako elkarbizitzaren berri ematen du filmeak eta baita nola utzi zuen zur eta lur artearen mundua bikote harrigarri honek ere. Leon Trotskyrekin bizi izan zuen isileko amodio abenturek ere badute tarterik eta zenbait emakumerekin izan zituen elkartze erromantikoek ere bai.

N

r11



# A

ste honetako erretratu zaharra Karmen Errezabalek laga digu. 1940. urtean Pol-Pol iturrian ateratako argazkia da. Esan digutenez, ohitura izaten zen bertara joatea, eta lagun talde honek ere, mendi buelta egin ostean, bertan atera zuen erretratua. Gogora ditzagun zein diren argazkian agertzen direnak.

Goian: Sabin Arriola (t).  
Bigarren ilaran, ezkerretik eskumara: Maria Irusta (t), Pepita Irusta (t), Iñaki Konde (t) eta Florita Arrillaga.


Hirugarren ilaran: Karmen Zubizarreta (t), Maritxu Irusta, Miren Zubizarreta (t), eta Lazaro Unzueta (S).

Azpian, ezkerretik eskumara: Luciano Ecenarro (t), Antonio Arrillaga (t) eta Rosa Unzueta.




## ESKERTZA

2003ko apirilaren 22an, 63 urte zituela hil zen **SATUR VIÑARAS DE PABLO**ren sendiak bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## ESKERTZA

2003ko apirilaren 23an, 78 urte zituela hil zen **JOSE RAMON ORTUOSTE ELORDIETA**ren sendiak bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





# ICRO

## SYSTEM

## INFORMATIKA

- Ekipo informatikoen salmenta eta konponketa
- Sare eta zerbitzarien instalazioa eta mantenimendua
- Asistentzia teknikoa
- Software: gestio, kontabilitate, ostalaritza, TPV...



ZURE  
DENDA BERRIA



### MICRO-SYSTEM INFORMATIKA

ELGOI.../1410:11,1161111161.W\_Mti,L-C'dAI=1: 1A;ej;J'/(t 11 40

MUTRIKU - ,jCb)17\_ "12

# Maribi Agirregomezkortarekin

## Elgoibar beti aurrera.



**Mr** 650 Etxe berrien sorrera

**[Yr** Musika Eskola berria

**Yr'** Mintxetako igerilekuen irekiera

Limousin ganaduaren txapelketa

111 Gaztedi zinegotziaren eraketa

- Herriko apainduaren hobekuntza: lorategi, zubi, kultur ondarea...
- Buruko gaitza duten gaixoentzat eguneko zentrua
- Haurtzaindegia zabalpena eta berregokitzapena



Bozkatu eraginkor.

eusko **411**  
alkartasuna

